



VI. eranskina

IRAKASKUNTZA EZ-PRESENTZIALA

EBALUATZEKO TRESNAK ETA PROZEDURAK

A) Irakaskuntza eta ikaskuntza ez-presentziala _ Tresnak eta prozedurak

Ikasturte amaierako ebaluazioa eta ondoriozko kalifikazioa egite aldera, eta ebaluazioa etengabekoa dela kontuan hartuta, irakasleek modu sistematikoan eta irakatsi eta ikasteko prozesu osoan jaso beharko dituzte ikasleen aurrerapenaren ebidentziak.

Horretarako, ezinbestekoa da **ikaskuntzaren ebidentziak** bildu eta erregistratzea. Ebidentzia horietarako erreferentzia izango dira, bai lorpen-adierazleak, bai ikasleen konpetentzien garapenean lortu beharreko gutxieneko mailen zehaztapena —ikastetxe bakoitzaren curriculum-proiektuan eta urteko programazioetan ezartzen dira—. Ikastetxe bakoitzeko irakasle taldeak lorpen-adierazle horiek eta aipatutako gutxieneko mailen zehaztapena lehenetsi beharko ditu eta/edo inguruabar zehaztutara eta funtsezko edukietara egokitu beharko ditu.

Inguruabar jakin batzuetan, hala nola irakatsi eta ikasteko prozesua **modu ez-presentzialean** garatzen denean, kontuan hartu beharko da ikaskuntza-ebidentzia horiek biltzeko ohiko tresnak agian ez direla nahikoa izango, eta komenigarria izan daitekeela beste informazio batzuk ere erabiltzea.

Halaber, ebaluazio-prozesua egiterakoan, kontuan hartu behar dira ikasleentzako sor daitezkeen mugak, bereziki ikasteko zailtasunekin, egoera sozial ahulekin eta abarrekin lotzen direnak.

Ikaskuntzak ebaluatzeko garaian, kontuan hartu behar dira ikasleen estilo kognitiboen aniztasuna, “Ikasten eta pentsatzen ikasteko” konpetentziaren garrantzia eta ikaskuntza-prozesuen erregulazioa, ikasitakoaren heldutasuna erakusten duten elementu diren heinean.

Ikaskuntza-egunkarien, portfolioen edo autoebaluazio-estrategien —erabili badira— edukia balia daiteke ikasitakoaren ebidentziak jasotzeko eta lortutako konpetentzia-garapenaren maila jasotzeko bide gisa. Irakasleek prestakuntza ez-presentzialean egiten dituzten lanak ere baliatu ahal izango dira alderdi horiek jasotzeko.

Agindutako lanak egitean ikasleak izan duen bilakaerari buruzko erregistroak, beraz, datu adierazgarriak izango dira.

Irakasleen koordinazioa funtsezkoa da ikasle bakoitzaren ikaskuntza-prozesuaren jarraipen eraginkorra egiteko, baita esparru, arlo eta irakasgai guztietarako komunak diren alderdiak batera ebaluatzeko ere.



Familiek emandako informazioa ere kontuan har daiteke ebaluazio-sistemaren osagai gisa, batik bat Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehen kurtsoetan.

Ondoren, zenbait ebaluazio-tresna proposatzen da —ikastetxeek tresna horiek beren testuingurura egokitu eta erabili ahal izango dituzte—:

- Irakaslearen koadernoak, non modu sistematikoan jasotzen den ikaslea nola ari den aurrera egiten zehaztutako ikaskuntza-adierazleei dagokienez.

- Ikasleek egindako lanen berrikuspena eta analisisa. Ikasleari esleitutako lan bakoitzaren atzean helburu jakin batzuk daude. Lanak arreta handiz berrikustek aukera emango du jakiteko ea ikasleak ulertu dituen proposatu diren kontzeptuak eta ea horiek aplikatzeko gauza den.

- Ikasleei gero eta zailtasun handiagoko lanak mailakatuta planteatzea, irakasleak ikus dezan ikasleak zein mailatan erantzun dezakeen. Horrek kalifikazioa zehaztuko du (baita hurrengo lan-proposamenerako abiapuntua ere).

- Ikasleekin banakako tutoretzak egitea telefonoz edo skipe bidez, haien lanean ikusten diren arakastak eta zailtasunak azaltzeko, eta ikasleari galdetzeko berak nola hautematen duen hori, jakiteko horretaz jabetzen den eta azaltzeko zer gertatzen den, zer ez duen ulertzen, arazoa non dagoen (hartara, ikasleari laguntzeaz gain, informazio handia lortzen du irakasleak).

- Landutakoari eta ikasitakoari buruzko meta-analisiko eta autoebaluazioko prozesuak bultzatzea, honelako gisako galderak planteatuz: zer ikasi duzu gaur? Oraindik aplikatzea zaila egiten zaizun zer ikasi duzu? Zer birpasatu beharko genuke bihar? Ikaskide bati azaltzeko gauza izango zinateke? Probatu! Egin galderaren bat zure lagunak ulertu duen edo egiteko gai den egiaztatzeko. Bururatzen al zaizu landu ez dugun gaiari buruzko galderaren bat? Interesgarria izan dakizukeen zerbait?.....

Galdera horiek egokituko dira planteatutako ariketen bidez edo jorratutako gaiaren bidez ikasleak ikastea nahi den horretara. Galdera horiei esker, oso datu fidagarriak lortzen dira lortutako ikaskuntza-mailari buruz.

- Eskema eta mapa kontzeptualak egin daitezkeen planteatzea, ikasleak landu den edukia edo kontzeptua ulertu duen ikusteko. Lehen kurtsoetako ikasleen kasuan, aurrez egindako mapa kontzeptualak izan daitezke —hitzak faltan dituztenak edo pistak ematen dituzten marrazkiak dituztenak—. Irizpide jakin batzuen arabera sailkapenak eta sekuentziak egitea,...

Ikasle nagusien kasuan balio handiko tresna da, haien arteko erlazioak eta kontzeptuak ulertzen diren ikusteko. Gainera, ulermenaren eta ikaskuntzaren arloan ikasleen artean dauden heldutasun-aldeak argi eta garbi hautemateko aukera ematen du.

- Halaber, eta helburu berarekin, proposa dakieke landutako gai edo edukiren bat laburtzea eta PowerPoint bat egitea (egindako laburpenak eta emandako egiturak oso argi islatzen du lortutako ikaskuntza-maila). Irudikapen grafikoak?

- Gela guztiaren aurrean bideokonferentzia bidezko ahozko aurkezpenak egitea.



- Ikaskideei planteatzeko galderak ere presta ditzakete (saio horietatik informazio handia lor daiteke kompetentzien ikaskuntza eta garapena neurtzeko adierazleei buruz, bai zeharkako kompetentziei dagokienez —prestatu duten jardueraren azalpena, laburtzeko gaitasuna, antolamendua eta kudeaketa—, bai diziplina-kompetentziei dagokienez —azaltzeko gai bada, benetan ikasi duen seinale—).

- Proba objektiboak, posta elektronikoko bidez, posta bidez, classroom bidez eta abar bidalitakoak. Proba objektiboetan, zaindu beharko da “5” edo “nahiko” kalifikazioa lortzen dela oinarrizko alderdiei buruzko gaiekin. Hortik aurrera, landutako kontzeptuen ezagutza handiagoa eskatuko duten zailtasun handiagoko gaiak planteatu daitezke (orduan oso ondo, bikain edo nahikoa kalifikazioak lortuko dira). Zuzenketa-prozesuan, ez da ahaztu behar informazioa biltzen ari garela eta alde aurretik egokitu diren ikaskuntza-adierazleen lorpen-maila neurtzen ari garela (hau da, badakien eta zer sakontasun-mailarekin dakien), eta proba objektiboa informazioa lortzeko tresna dela, berez helburu bat baino gehiago.

- Irakasle taldearen bilerak, jasotako informazioa partekatzeko eta ikasle bakoitzak adierazle bakoitzean izandako bilakaera eta lorpen-maila aztertzeko. Irakasle guztiek neurtuko dituzten alderdiak identifikatzea (testuak ulertzen ditu, ideia nagusia identifikatzen du, kausa-efektu erlazio logikoak ezartzen ditu, landutako oinarrizko alderdiak ezagutu/identifikatzen ditu, oinarrizko alderdi horiek labur-labur azaltzeko gai da, beste batzuekin erlazionatzeko gauza da...) eta arlo bakoitzean, irakasgai bakoitzean eta abar jasotako oharra eta ebidentziak partekatzea.

- Zenbait ariketa eta estrategia mota erabiliko da zehaztutako ikaskuntza-adierazle bakoitzaren informazioa biltzeko. Askotariko estilo kognitiboak daudela hartu beharko da kontuan. Guztiek izan behar dute ikasi dutela eta egiteko gauza direla egiaztatzeko aukera. Era berean, azken nota zehazteko balio handiagoa edo txikiagoa izan dezaketen adierazleak identifikatu behar dituzte.

- Familiekin hitz egiteak garrantzi handiko informazio eman dezake (ariketak nola egin dituzten jakitea, zenbat denbora behar izan duten jakitea, egiten ari ziren bitartean egindako iruzkinak ezagutzea...).

B) Irakaskuntza eta ikaskuntza ez-presentzialaren eta ikasle absentisten ebaluazioa

Ikasturte hau osasun-krisi bete-betean ari da garatzen; hori dela eta, behar-beharrezkoa izan da Oinarrizko Hezkuntzako ikasleen eskola-absentismoaren jarraipena egiteko jarraibide osagarriak eta jarraibide espezifikoak ezartzea. Ildo horretatik, sortutako kasuistikak kudeatzeko berariazko jarraibideak bidali zitzaizkien ikastetxeei, gure ikasle guztien hezkuntzarako eskubidea bermatzen dadin.

Ikasleen absentismoaren jarraipena eta kontrola egiteko emandako jarraibide horien ondoren, eta hezkuntzarako eskubidea erabat bermatze aldera, orain hezkuntza-prozesuaren funtsezko osagaietako bati buruzko jarraibideak eman behar dira: ikasle horien ikaskuntzaren ebaluazioari eta ebaluazio horrek bidezko ebaluazio-dokumentuetan duen islari buruzkoak.



Indarrean dagoen araudiak ezartzen duenez, ikasleen kompetentzien ebaluazioak banakakoa, etengabekoa eta orokorra izan beharko du, eta kontuan hartuko du ikasleak curriculumaren arlo/esparru/irakasgai guztietan oinarrizko kompetentziei dagokienez izandako aurrerapena.

Kontuan hartu behar dugu guztiongan eragina duen osasun-krisi batek sortutako ezohiko egoera batean gaudela, eta, pandemiarekin zerikusia duten arrazoiengatik, ikasle gehiagok utzi behar izan diola ikastetxera joateari, baina ez dugu ahaztu behar gure ikasle guztiek hezkuntzarako eskubidea dutela, eta sortutako kasuistika guztiei eman behar diegula arreta:

- a) Ikaslearen osasunerako arriskua alegatuz ikastetxera joaten ez diren ikasleak, baina, ikuskatzaile orokorraren jarraibideetan ezarritako prozedurari jarraituz, ikastetxean aldetik arreta ez-presentziala jasotzen ari direnak.
- b) Bizikidearen osasunerako arriskua alegatuz ikastetxera joaten ez diren ikasleak, baina, ikuskatzaile orokorraren jarraibideetan ezarritako prozedurari jarraituz, ikastetxean aldetik arreta ez-presentziala jasotzen ari direnak.
- c) COVID-19aren ondoriozko egoerari beldurra zaiola alegatuz, edo aurreko bi kasuak aipatuz, ikastetxera joaten ez diren eta arreta ez-presentziala eskatzeko ezarritako prozedurari jarraitzen ez dioten ikasleak.
- d) Beste arrazoi batzuegatik ikastetxera joaten ez diren ikasleak.

Ikasle horien artean barnean hartu behar dira osasun-agintariak hala aginduta ikastetxera aldi baterako joateari uzten dioten ikasleak (konfinatuak).

Ezohiko egoera horretan, eta ikasle horien ebaluaziorako eskubideari erantzute aldera, ikastetxeei gomendatzen zaie ondoren adierazten den moduan jardutea:

a) HAUR HEZKUNTZA

Kontuan izanik etapa hau ez dela derrigorrezkoa eta mailaz automatikoki eta adinaren arabera igotzen dela, besteak beste, ikastetxeek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte ikasle horien hezkuntza-prozesuak ahalik eta eraginik txikiena izan dezan. Ikasturte amaierako ebaluazioa egitean, eta ebaluazioa etengabekoa dela kontuan hartuta, irakasleek modu sistematikoan eta irakatsi eta ikasteko prozesu osoan jaso beharko dituzte ikasleen aurrerapenaren ebidentziak. Horretarako, erabilgarriak izan daitezke VI. eranskin honetako A) atalean proposatzen diren ebaluazio-tresnetako batzuk —ikastetxe bakoitzak bere testuingurura egokitu eta erabil ditzake—.

Gainera, ikasle horien jarraipenean ez bada mailaren helburuak bete direla egiaztatu, komenigarria izango litzateke 2021-2022 ikasturtearen hasieran ikasle horien hasierako ebaluazioa egitea, haien aurrerapen akademikoan eragin negatiboa izan dezaketan ikaskuntzak indartze aldera.

**b) LEHEN HEZKUNTZA**

Ikasturte honen kasuistikari erreparatuta, eta kontuan hartuta ikasleen kompetentzien ebaluazioak banakakoa, etengabekoa eta orokorra izan beharko duela eta ikasleak curriculumaren arlo/esparru/irakasgai guztietako oinarrizko kompetentzietan izandako aurrerapena aintzat hartu behar dela, honako jarduketa hauei erantzun behar zaie:

- a) Osasun-agintaritzak konfinatu dituen ikasleen kasuan, edo ikuskatzaile nagusiak ikastetxeetara bidalitako jarraibideen arabera arreta ez-presentziala eskatu eta jasotzen duten ikasleen kasuan, kontuan hartu behar da ikasle horiek ez dutela **etengabeko ebaluaziorako eskubidea** galtzen. Ikastetxeek ebaluazio hori egingo dute VI. eranskin honetako A) atalean eskainitako estrategien eta tresnen arabera edo ikastetxeek beraien diseinatutako beste estrategia eta tresna batzuen arabera, eta dagozkien ebaluazio-dokumentuetan (ebaluazio-aktetan, espedienteetan eta abar) islatuko dira ebaluazioaren emaitzak eta mailaz igotzeak.
- b) Ikasle absentisten kasuan —hutsegiteen kopuru handia dela eta, **ezinezkoa** denean ikastetxeak onartutako **etengabeko ebaluaziorako** metodo eta irizpideak aplikatzea eta, horren ondorioz, irakasle taldeak ez duenean behar besteko informaziorik jakiteko ea ikasleak bere mailako kompetentziak egoki garatu dituen—, komeni da ikasle horien ebaluaziorako sistema alternatiboak diseinatzea eta erabiltzea —osasun-krisiak eragindako **ezohiko moduan**—, betiere ikastetxeko Koordinazio Pedagogikorako Batzordeak proposatutakoaren arabera edo, ikastetxe itunduen kasuan, antolamendu-eta funtzionamendu-arauak edo barne-araubideko erregelamendua ezartzen dituen organoak proposatutakoaren arabera. Horretarako, VI. eranskin honetako A) atalean eskainitako estrategiak eta tresnak har daitezke erreferentziazat, eta egindako ebaluazioaren emaitzak dagozkien ebaluazio-dokumentuetan jasoko dira. Ikasleek gutxieneko gaitasun-mailak lortu ote dituzten jakin ezin den kasuetan, dokumentazio akademikoan jasoaraziko da hala gertatu dela.

c) DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

Ikasturte honen kasuistikari erreparatuta, eta kontuan hartuta ikasleen kompetentzien ebaluazioak banakakoa, etengabekoa eta orokorra izan beharko duela eta ikasleak curriculumaren irakasgai/esparru guztietako oinarrizko kompetentzietan izandako aurrerapena aintzat hartu behar dela, honako jarduketa hauei erantzun behar zaie:

- a) Osasun-agintaritzak konfinatu dituen ikasleen kasuan, edo ikuskatzaile nagusiak ikastetxeetara bidalitako jarraibideen arabera arreta ez-presentziala eskatu eta jasotzen duten ikasleen kasuan, kontuan hartu behar da ikasle horiek ez dutela **etengabeko ebaluaziorako eskubidea** galtzen. Ikastetxeek ebaluazio hori egingo dute VI. eranskin



honetako A) atalean eskainitako estrategien eta tresnen arabera edo ikastetxeek beraiek diseinatutako beste estrategia eta tresna batzuen arabera, eta dagozkien ebaluazio-dokumentuetan (ebaluazio-aktetan, espedienteetan eta abar) islatuko dira ebaluazioaren emaitzak eta mailaz igotzeak.

- b) Ikasle absentisten kasuan — hutsegiteen kopuru handia dela eta, ezinezkoa denean ikastetxeak onartutako etengabeko ebaluaziorako metodo eta irizpideak aplikatzea eta, horren ondorioz, irakasle taldeak ez duenean behar besteko informaziorik jakiteko ea ikasleak bere mailako konpetentziak egoki garatu dituen—, komeni da ikasle horien ebaluaziorako sistema alternatiboak diseinatzea eta erabiltzea, betiere ikastetxeko Koordinazio Pedagogikorako Batzordeak proposatutakoaren arabera edo, ikastetxe itunduen kasuan, antolamendu- eta funtzionamendu-arauak edo barne-araubideko erregelamendua ezartzen dituen organoak proposatutakoaren arabera. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko Dekretuan (201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa) ezarritakoaren arabera jokatu da. Dekretu horren 38. artikuluan aipatzen da ezin dela etengabeko ebaluazioa egin, hutsegiteak etengabeak direnean. Hala, 1. puntuan ezartzen denez, hutsegite kopuru handia izan duten ikasleei ezin zaizkienean aplikatu ikastetxeak onartutako etengabeko ebaluaziorako metodo eta irizpideak, ikasle horiek **ezohiko proben** aurkezpenaren bidez ebaluatu beharko dira. Ebaluazioaren, mailaz igotzearen eta titulazioaren emaitzak dagozkien ebaluazio-dokumentuetan jasoko dira (ebaluazio-aktetan, espedienteetan, eta abar). Ikasleek gutxieneko gaitasun-mailak lortu ote dituzten jakin ezin den kasuetan, dokumentazio akademikoan jasoaraziko da hala gertatu dela.

Beste maila batzuetan, hala nola Oinarrizko Lanbide Heziketan —ikasleak derrigorrezko eskolatzeari daude—, Lanbide Heziketan eragina duten arauak eta jarraibideak diotenari lotuko zaio.

d) BATXILERGOA

Ikasturte honen kasuistikari erreparatuta, eta kontuan hartuta ikasleen konpetentzien ebaluazioak banakakoa, etengabekoa eta orokorra izan beharko duela eta ikasleak curriculumaren irakasgai guztietako oinarrizko konpetentzietan izandako aurrerapena aintzat hartu behar dela, honako jarduketa hauei erantzun behar zaie:

- a) Osasun-agintaritzak konfinatu dituen ikasleen kasuan, edo ikastetxearen kontingentzia-planaren arabera arreta ez-presentziala eskatu eta jasotzen duten ikasleen kasuan, kontuan hartu behar da ikasle horiek ez dutela **etengabeko ebaluaziorako eskubidea**



galtzen. Ikastetxeek ebaluazio hori egingo dute VI. eranskin honetako A) atalean eskainitako estrategien eta tresnen arabera edo ikastetxeek beraiek diseinatutako beste estrategia eta tresna batzuen arabera, eta dagozkien ebaluazio-dokumentuetan (ebaluazio-aktetan, espedienteetan eta abar) islatuko dira ebaluazioaren emaitzak eta mailaz igotzeak.

- b) Hutsegiteen kopuru handia dela eta, ezinezkoa denean ikastetxeak onartutako etengabeko ebaluaziorako metodo eta irizpideak aplikatzea eta, horren ondorioz, irakasle taldeak ez duenean behar besteko informaziorik jakiteko ea ikasleak bere mailako kompetentziak egoki garatu dituen, komeni da ikasle horien ebaluaziorako sistema alternatiboak diseinatzea eta erabiltzea. Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko Dekretuan (201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa) ezarritakoaren arabera jokatu da. Dekretu horren 38. artikuluan aipatzen da ezin dela etengabeko ebaluazioa egin, hutsegiteak etengabeak direnean. Hala, 1. puntuazartzen denez, hutsegite kopuru handia izan duten ikasleei ezin zaizkienean aplikatu ikastetxeak onartutako etengabeko ebaluaziorako metodo eta irizpideak, ikasle horiek **ezohiko proben** aurkezpenaren bidez ebaluatu beharko dira. Ebaluazioaren, mailaz igotzearen eta titulazioaren emaitzak dagozkien ebaluazio-dokumentuetan jasoko dira (ebaluazio-aktetan, espedienteetan, eta abar). Ikasleek gutxieneko gaitasun-mailak lortu ote dituzten jakin ezin den kasuetan, dokumentazio akademikoan jasoaraziko da hala gertatu dela.

Aurreko hezkuntza-etapetako edozeinetan, kontuan hartu beharko da indarrean dagoen araudiak aditzera ematen duena Ebazpen honen V. eranskinean adierazten diren ikasturteko **azken kalifikazioak erreklamatzeko prozedurari** buruz. Horretarako, komenigarria da ikasle horien ebaluazioari eta kalifikazioari buruz erabakitzen diren gaiak idatziz jasoaraztea, arloen eta irakasgaien programazioen eranskin gisa.